



EROSKI FUNDAZIOA

**2023KO JARDUEREN MEMORIA
ETA 2024KO EKINTZA PLANA**

Data: 2024/06/16

Bertsioa: 1

Edukia

Edukia	2
1. EROSKI FUNDAZIOA	3
1.1. Fundazioaren jatorria.....	3
1.2. Misioa.....	3
1.3. Antolaketa egitura.....	3
1.4. Fundazioaren jarduerak	10
1.5. Kontaktua.....	10
2. 2023ko JARDUEREN MEMORIA	11
2.1. Informazio-produktuak.....	11
2.1.01. Jardueraren identifikazioa	11
2.1.02. Jardueraren deskribapen xehea	11
2.1.03. Helburuak eta adierazleak.....	12
2.2. Kontsumitzailearen prestakuntza	12
2.2.01. Jardueraren identifikazioa	12
2.2.02. Jardueraren deskribapen xehea	12
2.2.03. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak.....	13
3. 2024KO EKINTZA PLANA	14
3.1. Informazio-produktuak.....	14
3.1.01. Jardueraren identifikazioa	14
3.1.02. Jardueraren deskribapen xehea	14
3.1.03. Aurreikusitako giza baliabideak.....	15
3.1.04. Aurreikusitako onuradunak edo erabiltzaileak	15
3.1.05. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak.....	15
3.2. Kontsumitzailearen prestakuntza	16
3.2.01. Jardueraren identifikazioa	16
3.2.02. Jardueraren deskribapen xehea	16
3.2.03. Aurreikusitako onuradunak edo erabiltzaileak	17
3.2.04. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak.....	17

1. EROSKI FUNDAZIOA

1.1. Fundazioaren jatorria

EROSKIk urteko irabazien %10 itzultzen dizkio gizarteari, gizartearentzat eta herritarrentzat interesa duten hainbat jardueraren bidez. EROSKI Taldea Fundazioa arduratzen da inbertsio hori kudeatzeaz.

Fundazioa 1997ko abuztuaren 5ean eratu zen, eskritura publiko bidez.

1.2. Misioa

Helburu hauek ditu Fundazioak:

1. Kontsumitzaileen interes zilegiak sustatzearekin eta babestearekin zerikusia duten jarduerak finantzatzea.
2. Kontsumo iraunkorra laguntzeko ekintzak bultzatzea.
3. Kontsumoaren arloari lotutako ikerketak egitea; bereziki, kontsumitzaileen osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten gaiei buruzkoak.
4. Bizi ohitura osasungarriak sustatzeko ekimenetan parte hartzea.
5. Kulturarekin lotutako jarduerak sustatzea.
6. Kontsumitzaileen sustapenarekin lotutako argitalpenak plazaratzea, bai gure komunikabideetan eta bai kanpokoetan. Jarrera kontsumeristak eta ingurumenaren aldekoak zabaltzea, egoki irizten zaien bitartekoen bidez.
7. Banaketa komertzialaren sektorearen ikerketa eta garapena bultzatzea.
8. Langileen prestakuntza sustatzea gaitasun profesionala eta pertsonala hobetzearekin zerikusia duten alderdi guztietan.
9. Fundazioko kideek gizarte-erantzukizunaren arloan egindako ekarpenak gizarteari jakinaraztea.
10. Enplegua sortzera bideratutako jarduerak diruz laguntzea.

1.3. Antolaketa egitura

Fundazioaren gobernantzari eta kudeaketari dagokion guztia Estatutuetan araututa dago, eta, Estatutuetan berriaz aditzera ematen denez, Patronatuko karguak doakoak dira. Patronatuak kontuak eman eta aurrekontuak aurkeztu behar dizkio Babesletzari.

Fundazioaren Patronatu gorenak kudeatzen ditu erakundearen jarduerak, honako irizpide hauek kontuan hartuta: onuradunekiko inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza eta bere helburuak lortzeko independentzia, eraginkortasuna eta erantzukizuna. Horretarako, bere kabuz jarduten du edo lankidetzaz hitzarmenak egiten ditu instituzioekin, GKE-ekin, elkarteekin eta bestelako entitateekin.


Eroski Fundazioaren Patronatua

Patronatuko kargua	LEHENDAKARIA	
Izena	ROSA Mª CARABEL DI PAOLA	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	EROSKI Taldearen zuzendari nagusia	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa Zientzietan diplomaduna eta lizentziaduna. • MBA masterra, Vigoko Negozio Eskolan. • Advanced Management Program masterra, IE Business School unibertsitatean. 	
Profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • 1994an Vegalsan lanean hasi zen; Zuzendaritza Nagusiko kide eta Marketineko zuzendari izan zen. • 2004az geroztik hainbat kargu izan ditu EROSKIIn: Frankizien eta Autozerbitzuen zuzendaria, supermerkatuen negozioan; EROSKI Cityren eta EROSKI Centerren zuzendaria, iparraldean; eta Taldeko frankizien zuzendaria, Ekonomia eta Finantza zuzendaria eta Sareko zuzendari nagusia. • 2022an, EROSKI Taldearen Zuzendaritza Nagusia hartu zuen, eta kargu horretan jarraitzen du gaur egun. • EROSKI Taldeko zenbait sozietatetako administrazio kontseiluko kidea eta administratzaile bakar eta solidarioa da. 	

Patronatuko kargua	IDAZKARIA	
Izena	LEIRE MUGERZA GARATE	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	<ul style="list-style-type: none"> • EROSKIko Kontseilu Errektoreko lehendakaria • Hezkuntza arloko langilea 	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Industriako Ingeniaritza Teknikoa, Mondragon Unibertsitatean. Espezialitatea: Mekanika (Antolaketa sistemak). • 2001-2002. Enpresa Kooperatiboen Zuzendaritzako MBA masterra (Otalora) 	


<p>Profil profesionala</p> <p>(Leire Mugerza, Patronatuko idazkaria)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • 2012 – Gaur egun. Eroski S. Coopeko Kontseilu Errektoreko lehendakaria eta Mondragon Korporazioko Batzorde Iraunkorreko kidea. • 2010eko martxoa-gaur egun. Lea Artibai Ikastetxeko irakaslea eta Azaro Fundazioko kidea. • 2007ko urtarrila-2010eko martxoa. Lea Artibai Ikastetxearen zuzendaria eta Azaro Fundazioko lehendakaria. Deskarguak Kontseilu Errektorean, Batzorde Betearazlean eta Kontseilu Errektorean. • 2006ko urria-2007. Eika S. Coop. Eika Taldeko Industria eta Sistemen zuzendari izendatua. Eika Taldea (Etxebarria, Txekia, Mexiko eta Polonia). • 2003ko martxoa-2007ko maiatza. Eika S. Coop. Kontseilu Errektoreko lehendakaria, Gizarte Kontseiluko lehendakari funtzioak ere bere gain zituela. • 2003ko urtarrila. Eika S. Coop. Taldeko Kalitate eta Sistemen zuzendaria. • 2001eko ekaina. Eika S. Coop. Taldeko Kalitate zuzendaria eta Zuzendaritza Kontseiluko kidea. • 2000ko urria-2001eko ekaina. Eika S. Coop. Kudeaketa Sistemen arduraduna (Ez dago kalitate zuzendaririk, gerentziaren arabera). • 1999ko uztaila-2000ko iraila. Eika S. Coop. Hobekuntza Jarraituko teknikaria.
---	--


Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	MIKEL LARREA AZPEITIA	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	EROSKI Taldeko Komunikazio eta Harreman Korporatiboetako zuzendaria	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna 	
Profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • 29 urteko lan-ibilbidea EROSKIn; horietatik 21, Logistika arloko erantzukizuneko karguak betez, eta 8, Taldearen Idazkaritza Nagusian. Gaur egun, Komunikazio eta Harreman Korporatiboetako zuzendaria da. • HISPACOOOP Kontsumoko Kooperatiben Espainiako Konfederazioko lehendakaria. • Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko eta Kooperatiben Kontseilu Goreneko kidea. • ERKAR-LANeko lehendakariordea. • Basque Culinary Centerreko Patronatuko eta Batzorde Betearazleko kidea. • Azti Zentro Teknologikoaren Patronatuko kidea. • Leartikerreko Kontseilu Errektoreko kidea. • AESANeko Aholku Batzordeko kidea. 	

Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	JOSE RAMON ANDUAGA AGUIRRE (<i>independentea</i>)	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	Erretiratu	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa Zientzietan lizentziaduna. • MBA, Masterra Euskal Herriko Unibertsitatean. 	
Profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • Mondragon taldeko enpresa kooperatiboetan egin du lan-ibilbidea; hasieran, Fagor eta Ulma enpresetan, barne-ikuskatzaile eta Ekonomia eta Finantza zuzendari gisa. • 2015. eta 2022. urteen artean EROSKI Taldeko Ekonomia eta Finantza zuzendaria izan da, eta EROSKI Taldeko hainbat sozietatetako administratzaile bakar, solidario eta administrazio kontseiluko kidea. 	

Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	FÉLIX MARTÍN GALICIA (<i>independentea</i>)	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Kooperatiben Espainiako Konfederazioko (HISPACOOOP) idazkari nagusia.	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, Madrilgo Complutense Unibertsitatean. 	
Profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • Hispacooopen egin du lan-ibilbidearen zati handi bat. Gaur egun, erakunde horretako idazkari nagusia da (2010. urteaz geroztik). Aurrez, idazkari teknikoa izan zen, bai eta Harreman Instituzionalen arduraduna ere. • Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen VI. Kontseiluko lehendakariordea. • Kontseiluaren ordezkaria Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean. • Kontseilua ordezkatu izan du hainbat erakunde eta instituziotan, adibidez, Herri Lan eta Garraio Ministerioko Telekomunikazioen Aholku Batzordean, Argindarraren Aholku Kontseiluan, eta abarretan. • Kontsumitzaileen Kontseiluko kidea, eta HISPACOOOPek organo horretan duen bozeramailea da 1996az geroztik. • Madrid-Sur Fundazioko idazkari nagusia izan zen 2000. urtetik 2004ra 	

Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	M. ASUNCIÓN BASTIDA SAGARZAZU	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	EROSKI Taldearen zuzendari komertzialaren albokoa eta Tokiko Produktuaren zuzendaria	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, Deustuko Unibertsitatean. Finantzetako espezialitatea, Bresteko Merkataritzako Goi Ikastegian egina, Britainian (Frantzia). 	
Profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • 2014 – Gaur egun. EROSKI Taldearen zuzendari komertzialaren albokoa eta Tokiko Produktuaren zuzendaria. • 2008 – 2013. Salmenta Puntuetako Prozesu eta Sistemen zuzendaria EROSKI Taldeko Prozesu eta Sistemen arloaren barnean. • 2004 – 2008. Pertsonen arduraduna EROSKI Taldeko E6000 Hipermerkatuetan. • 1998 – 2004. Pertsonen Eskualdeko arduraduna Euskadiko E6000 Hipermerkatuetan. • 1996 – 1998. Elikagaietatik Kanpoko Atalaren atalburua Azkoitiko EROSKI hipermerkatuan. • 1995 – 1996. Atalburua Kiabi modako banaketa kate frantsesean. 	


Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	GABRIELA JARA GONZÁLEZ MÁRQUEZ <i>(independentea)</i>	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	Komunikazioko, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko, Nazioarteko Harremanetako eta Bezeroen Arloko zuzendaria Vegalsan	

Patronatuko kargua	KIDEA	
Izena	SONIA ORTUBAY BALANZATEGUI	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	<ul style="list-style-type: none"> • ABANTAIL S. Coopen zuzendari kudeatzailea. • EROSKIko Kontseilu Errektoreko idazkaria. 	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Goi Mailako Ingeniaritza, Naoned-eko École Nationale Supérieure De Mécanique ikastegian, Frantzian. Espezialitatea: Mekanika. Aukera: Informatika. • Ingeniaritza Teknikoa, Mondragon Goi Eskola Politeknikoan 	

	(Mondragon Unibertsitatea). Espezialitatea: Mekanika. Aukera: Makina-erremintako Diseinua eta Eraikuntza.
Profil profesionala (Sonia Ortubay, Patronatuko kidea)	<ul style="list-style-type: none"> • 2008-gaur egun. ABANTAIL S. Coopen zuzendari kudeatzailea. • 2010-gaur egun. SEA S. Coopeko Kontseilu Errektoreko kidea; izaera pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko berrikuntza eta ekintzailtza zentroa da SEA S. Coop, Enpresa Zerbitzuetan espezializatua eta MONDRAGON Korporazioko MISE dibisioan sartua. • 2003: LKS S.Coop: kooperatibako lehen Kontseilu Sozialeko kidea. • 2004-2008. ABANTAIL S.L. <i>spin-off</i>aren sortzailekidea eta zuzendarikidea. • 1996-2004. LKS S.Coop. Prozesu eta Teknologien arloko aholkularia. • 1994-1996. FAGOR SISTEMAS S.Coop. – Ekoizpen Antolaketaren arloko aholkularia. • 1991-1996. FAGOR SISTEMAS S.Coop. – Ekoizpenaren Kudeaketako aholkularia. • 1988-1989. Ingeniaritza Teknikoko ikasketekin uztartuta, CAD sistemen irakaslea MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAREN baitako IRAUNKOR Etengabeko Prestakuntza Zentroan. • 1986-1989: MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA Jose M^a Arizmendiarrrieta S.Coop.eko Kontseilu Errektoreko kidea, ikasleen ordezkari gisa. Lau urteko aldia, 1985eko abenduko eta 1990eko urtarrileko batzarren artean.

Zuzendari nagusia

EROSKI Fundazioaren zuzendari nagusia Alejandro Martínez Berriochoa da; bera da, halaber, egindako jardueren arduradun funtzionala.

EROSKI Fundazioko kargua	ZUZENDARI NAGUSIA	
IZENA	ALEJANDRO MARTÍNEZ BERRIOCHOA	
EROSKI Fundaziotik kanpoko kargua	<ul style="list-style-type: none"> • EROSKIko Osasun, Iraunkortasun eta Kalitate arloko zuzendaria 	
Profil akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenbidean lizentziaduna • Filologia Hispanikoan doktorea 	

<p>Profil profesionala (Alejandro Martínez, zuzendari nagusia)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Banaketa komertzialaren arloan lan egin du beti; Continente saltokietan hasi zen, 1995. urtean, eta EROSKIn aritu da, gero, 1997. urtetik aurrera. Bi hamarkadatik gorako lan-ibilbidean, hainbat ardura izan ditu –Marka Propioen arduraduna, Ehungintzako zuzendaria eta Erosketen zuzendaria izan da–, eta ardura hauek ditu, gaur egun: Marketin Estrategikoaren Arloko Osasun eta Iraunkortasuneko zuzendaritza eta EROSKI Fundazioaren zuzendaritza nagusia. • Intercoop Ltd-ko lehendakariordea izan da. Intercoop nazioarteko erosketen zentrala da, eta zerbitzua ematen die Eskandinaviako herrialdeetako eta Italiako banatzaile liderrei, baita EROSKIri ere. • Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioko lehendakaria (FECOE). • Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko aholkularia (CSCE). • Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko kidea (Konfekoop). • Kooperatibismoa sustatzea xede duen Elkar Lan S. Coop.eko lehendakariordea. • Nazio Batuen Munduko Itunaren Espainiako Sarearen Batzorde Betearazleko kidea. • Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Aldizkariaren Aholku Batzordeko kidea. • Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kidea. • AECAREN Gizarte Erantzukizuneko batzordeko kidea. • Basque Ecodesign Centerreko Batzorde Betearazleko kidea.
---	---

1.4. Fundazioaren jarduerak

Eroski Fundazioak honako jarduera hauek bideratzen ditu, berezkoak dituen helburuen barruan:

- (i) **Informazio-produktuak:** Eroski Consumer aldizkaria argitaratzea eta kontsumoaren arloko informazioa zabaltzeko eduki digitalak lantzea, publiko orokorrari begirakoak eta doakoak.
- (ii) **Kontsumitzailearen prestakuntza:** publiko orokorrari kontsumo arduratsuaren arloko prestakuntza eskaintzeko ekimenak.

1.5. Kontaktua

Fundazioak Elorrion du egoitza (Bizkaia), honako helbide honetan: San Agustin auzoa z/g. Helbide elektronikoa hau ere badugu, Eroski Fundazioarekin loturiko eskaerak eta kontsultak jasotzeko: info@fundacioneroski.es.

2. 2023ko JARDUEREN MEMORIA

Jarduera hauek egin dira 2023ko ekitaldian:

2.1. Informazio-produktuak

2.1.1. Jarduerearen identifikazioa

Jarduerearen izena	Informazio-produktuak
Jarduera mota	Berezko jarduera (merkataritza arloaz kanpoko), helburu soziala betetzeari lotua
Jarduerearen identifikazioa, sektorearen arabera	Kontsumitzaileen sektorea
Funtzioa	Komunikazioa eta zabalkundea
Jarduerearen eremua	<p>Jarduera honen ardatza Eroski Consumer informazio-proiektua da, eta eremu digitalean (Interneten, www.consumer.es kontsumo atariaren bidez) nahiz fisikoan (Consumer Eroski aldizkari inprimatua) gauzatzen da.</p> <p>Interneteko jarduera Eroski Fundazioaren sozietate egoitzaatik (Elorrio, Bizkaia) zuzentzen eta bideratzen da.</p> <p>Jarduera fisikoa (aldizkari inprimatua) Fundazioaren sozietate egoitzaatik zuzentzen eta bideratzen da, baina Espainia osoan gauzatzen da (aldizkaria Estatu osoan banatzen da).</p>

2.1.2. Jarduerearen deskribapen xehea

1. Kontsumitzaileari informazioa emateko www.consumer.es kontsumo atarian argitaratzeko edukiak sortzea, lantzea, idaztea, maketatzea eta digitalki kudeatzea. Doako ataria da, eta askotariko gaiak biltzen ditu: elikadura, osasuna, elikagaien segurtasuna, maskotak, haurtxoak, etxeko ekonomia, elkartasuna eta ingurumena... Done Jakue Bideari buruzko atal bat ere badu.
2. Kontsumitzaileari informazioa emateko edukiak eta kontsumitzaileen parte hartzea dinamizatzea sare sozialetan xede horiekin sorturiko profilen bidez (Facebook, Twitter, Instagram). 2023ko ekitaldian, zabaldu egin da proiektu honen hedadura: Instagram sare sozialera jauzi egin genuen ekainean, eta 9 milioi bistaratze izan ditugu sare horretan soilik.
3. Kontsumitzaileari informazioa emateko edukiak dinamizatzea gailu mugikorretarako (tabletak eta telefono adimendunak) garatutako aplikazio mugikorren bidez.

2.1.3. Helburuak eta adierazleak

Hauek dira jarduera honen helburuak eta adierazleak, onuradunei dagokienez:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia	Gauzatua
Onuradunak (guztira)	Web atariaren eta sare sozialen erabiltzaileak	40.000.000	69.146.284

2.2. Kontsumitzailearen prestakuntza

2.2.1. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Kontsumitzailearen prestakuntza
Jarduera mota	Berezko jarduera (merkataritza arloaz kanpokoa), helburu soziala betetzeari lotua
Jardueraren identifikazioa, sektorearen arabera	Kontsumitzaileen sektorea
Funtzioa	Bestelakoak
Jardueraren eremua	<p>Jarduera hau eremu digitalean (Interneten, www.escueladealimentacion.es atariaren bidez) nahiz eremu fisikoan (aurrez aurreko prestakuntza jarduerak) gauzatzen da.</p> <p>Interneteko jarduera Eroski Fundazioaren sozietate egoitzaatik (Elorrio, Bizkaia) zuzentzen eta bideratzen da.</p> <p>Jarduera fisikoa (aurrez aurreko jarduerak) Fundazioaren sozietate egoitzaatik zuzentzen eta bideratzen da, baina Espainia osoan gauzatzen da.</p>

2.2.2. Jardueraren deskribapen xehea

Kontsumitzaileari kontsumo arduratsua inguruko hainbat gairi buruzko prestakuntza emateko kanpainak sortu, landu eta gauzatzea (birtualak, Interneten, eta aurrez aurrekoak, eremu fisikoan), batez ere elikadura osasungarrian, elkartasunean eta ingurumenaren zaintzan oinarrituak.

Ikastetxeetako "Hazteko energia" jarduera programari eutsi zaio, gure herrian Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura orekatua eta aisialdi aktiboa sustatzen jarraitzeko. Horretarako, ikasgelan erabiltzeko materiala eguneratu da, digitalizazioaren bidetik. 2022-2023 ikasturtean, berriro heldu zaie aurrez aurreko tailerrei; izan ere, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, arlo horretan murrizketa handiak izan ziren aurreko ikasturteetan (2020-2021 eta 2021-2022). Iaz aurrez aurreko 86 tailer antolatu ziren dendetan, eta Lehen Hezkuntzako 1.786 ikaslek parte hartu zuten haietan; ikasleen

artean elikadura eta elikagaiak erosteko ohitura osasungarriak sustatzea izan zen tailer haien helburua.

Programak garrantzi handiko aliatuak ditu, hala nola Unicef, Bihotzaren Espainiako Fundazioa, Basque Culinary Center eta WWF (elikadurari dagokionez –elikadura haurren eskubide gisa ulerturik– eta ingurumenaren iraunkortasunari dagokionez, hurrenez hurren); baita programarekin bat egitea erabakitzen duten ikastetxeentzako bestelako baliabide batzuk ere. Planak oso emaitza onak izan ditu, ikastetxe askok izena eman eta milaka ikaslek jaso baitute prestakuntza.

Hezkuntza programak hainbat sari lortu ditu. Gizarte-berrikuntzako eta iraunkortasuneko jardunbide egokien aitortza lortu zuen, BTEM 2019 sariaren bidez, eta aurreko urteetako lorpenak gehitu behar zaizkio sari horri: finalista izan zen Erantzukidetasunaren Sari IX. Edizioan, 2018an; Gizarte Zibilarekiko Gizarte Erantzukidetzaren Kanpainarik onenaren saria, OCARE (Enpresa Erantzukidetzaren lotutako Komunikazioaren eta Ekintzaren Behatokia) Sari II. Edizioan, 2017an; eta dozena erditik gora aitortza eta sari, 2013az geroztik.

Arlo honetan antolatutako kanpainetan dozenaka mila lagunek parte hartu dute, eta aurreikuspen guztiak gainditu dira.

Kanpainak behar bezala garatu ahal izateko, prestakuntzaren, gizarte-ekintzaren, elikaduraren eta iraunkortasunaren esparruetako entitate esanguratsuekin lankidetzan jarraitu dugu 2023an. Esaterako, lankidetzaren hitzarmenak ditugu Ikasketa Katalanen Institutuarekin (CCNIEC) eta Hiperkolesterolemia Familiarraren Fundazioarekin (FHF). Hitzarmen horiek aukera eman digute, adibidez, elikadura osasungarriari buruzko prestakuntza kanpainak eratzean adituen aholkularitza egokia jasotzeko, baita entitate haien jarduerak babesteko ere, gure sortze helburuekin bat datozen heinean (kontsumitzaileari osasunari eta elikadura osasungarriari buruzko informazioa helaraztea, nagusiki).

2022ko abenduan, EROSKI Fundazioak Gizarte Eskubideen Ministerioaren dirulaguntza bat jaso zuen, 57.544 eurokoa, eta, hari esker, Hezkuntza Programa zabaldu egin zen 2023an. Hain zuzen ere, prestakuntza tailer gehiago antolatu ahal izan ziren eremu bereziki sentiberetan, esaterako, Ceutan, Lehen Hezkuntzako ikasleen artean elikadura eta erosketa ohitura osasungarriak sustatzeko.

2.2.3. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak

Hauek dira jarduera honen helburuak eta adierazleak, onuradunei dagokienez:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia	Gauzatua
Ikastetxeen bidez Hezkuntza Planean parte hartzen duten ikasleak	Ikasle kopurua	150.000	157.044
Entitateekiko lankidetzaren hitzarmenak	Entitate kopurua	2	2

3. 2024KO EKINTZA PLANA

EROSKI Fundazioak Ekintza Plan hau aurkeztu zien Patronatuko kideei 2024ko urtarrilaren 10ean, urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak ezarritako formatuaren eta ereduaren arabera. Errege Dekretu horren bidez onartu ziren Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen ekintza planaren eredia.

3.1. Informazio-produktuak

3.1.1. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Informazio-produktuak
Jarduera mota	Berezko jarduera (merkataritza arloaz kanpoko), helburu soziala betetzeari lotua
Jardueraren identifikazioa, sektorearen arabera	Kontsumitzaileen sektorea
Jardueraren eremua	<p>Jarduera honen ardatza Eroski Consumer informazio-proiektua da, eta eremu digitalean (Interneten, www.consumer.es kontsumo atariaren bidez) nahiz fisikoan (Consumer Eroski aldizkari inprimatua) gauzatzen da.</p> <p>Interneteko jarduera Eroski Fundazioaren sozietate egoitzaatik (Elorrio, Bizkaia) zuzentzen eta bideratzen da.</p> <p>Jarduera fisikoa (aldizkari inprimatua) Fundazioaren sozietate egoitzaatik zuzentzen eta bideratzen da, baina Espainia osoan gauzatzen da (aldizkaria Estatu osoan banatzen da).</p>

3.1.2. Jardueraren deskribapen xehea

1. Kontsumitzailearen informaziorako www.consumer.es kontsumo atarian argitaratzeko edukiak sortzea, lantzea, idaztea, maketatzea eta digitalki kudeatzea. Doako ataria da, eta informazio-edukiak eskaintzen ditu (erreportajeak, artikuluak, ikerketak, konparatiboak, aholkularitza, elkarrizketa) kontsumoarekin loturiko askotariko gaiei buruz (elikadura, elikagaien segurtasuna, osasuna, zuzenbidea, ekonomia, haurtxoak, maskotak, teknologia berriak, elkartasuna). Done Jakue Bideari buruzko atal bat ere badu.
2. CONSUMER EROSKI proiektuaren Facebook, Twitter eta Instagram sareetako profilak mantentzea.
3. CONSUMER EROSKIren gailu mugikorretarako aplikazioak mantentzea.

3.1.3. Aurreikusitako giza baliabideak

Jarduera hau gauzatzeko honako giza baliabide hauek aurreikusi dira:

Giza baliabideak	Aurreikusia*
Soldatapeko langileak	0
Zerbitzu kontratua duten langileak	9
Langile boluntarioak	0

* Urteko lanaldi osoak kontuan hartuta egin da baliabideen kalkulua.

3.1.4. Aurreikusitako onuradunak edo erabiltzaileak

Egindako aurreikuspenaren arabera, honako hauek dira jarduera honen onuradunak eta erabiltzaileak:

Informazio-produktuak	Aurreikusia
Onuradunak (kontsumitzaileak)	38.000.000
• Web atariaren erabiltzaileak	38.000.000

3.1.5. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak

Azkenik, honako helburu eta adierazle hauek aurreikusi dira:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia
Audientzia (bisitak)	Web atariko bisitak	38.000.000

3.2. Kontsumitzailearen prestakuntza

3.2.1. Jardueraren identifikazioa

Jardueraren izena	Kontsumitzailearen prestakuntza
Jarduera mota	Berezko jarduera (merkataritza arloaz kanpoko), helburu soziala betetzeari lotua
Jardueraren identifikazioa, sektorearen arabera	Kontsumitzaileen sektorea
Jardueraren eremua	<p>Jarduera hau eremu digitalean (Interneten, www.escueladealimentacion.es atariaren bidez) nahiz eremu fisikoan (aurrez aurreko prestakuntza jarduerak) gauzatzen da.</p> <p>Interneteko jarduera Eroski Fundazioaren sozietate egoitza (Elorrio, Bizkaia) zuzentzen eta bideratzen da.</p> <p>Jarduera fisikoa (aurrez aurreko jarduerak) Fundazioaren sozietate egoitza zuzentzen eta bideratzen da, baina Espainia osoan gauzatzen da.</p>

3.2.2. Jardueraren deskribapen xehea

Kontsumitzaileari kontsumo arduratsuen inguruko hainbat gairi buruzko prestakuntza emateko kanpainak sortu, landu eta gauzatzea (birtualak, Interneten, nahiz aurrez aurrekoak, eremu fisikoan), batez ere elikadura osasungarrian, elkartasunean eta ingurumenaren zaintzan oinarrituak.

Ikastetxeetako jarduera programari ("Hazteko energia" programa) eutsi zaio, gure herrian Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura orekatua eta aisialdi aktiboa sustatzen jarraitzeko. Horretarako, ikasgelan erabiltzeko material didaktiko berria sortuko da entitate adituekin lankidetzan, haiekin hitzarmenak sinatuta alde zuzenetatik, bai eta programarekin bat egitea erabakitzen duten ikastetxeetako aurrez aurreko tailerretarako bestelako baliabide batzuk ere.

Jarduera honetan, gutxienez 180.000 ikasleek parte hartuko dute, guztira, aurreikuspenen arabera.

Familientzako jarduerak ere landuko ditugu, elikadura ohitura osasungarriak errotzea helburu harturik, Elikadura Eskola proiektuaren testuinguruan, bai eremu digitalean nahiz aurrez aurre.

Jarduera hau gauzatzeko honako giza baliabide hauek aurreikusi dira:

Giza baliabideak	Aurreikusia*
Soldatapeko langileak	0
Zerbitzu kontratua duten langileak	5
Langile boluntarioak	0

* Urteko lanaldi osoak kontuan hartuta egin da baliabideen kalkulua.

3.2.3. Aurreikusitako onuradunak edo erabiltzaileak

Egindako aurreikuspenaren arabera, honako hauek dira jarduera honen onuradunak eta erabiltzaileak:

Informazio-produktuak	Aurreikusia
Onuradunak (kontsumitzaileak)	180.000
A. Ikastetxeen bidez hezkuntza planari atxikitako ikasleak	180.000
B. Entitateak (hitzarmenen bidez)	2

3.2.4. Aurreikusitako helburuak eta adierazleak

Azkenik, honako helburu eta adierazle hauek aurreikusi dira:

Helburuak	Adierazlea	Aurreikusia
Ikastetxeen bidez Hezkuntza Planean parte hartzen duten ikasleak	Ikasle kopurua	180.000
Entitateekiko lankidetzak hitzarmenak	Entitate kopurua	2